



2025-01-23



## Haurreskolak Partzuergoa: Lan hitzarmenaren negoziazioaren nondik norakoak

Atzo Lan Hitzarmenaren zirriborro berria jaso genuen. Honekin batera, urtarrilaren 24rako Mahai Negoziatzailearen deialdia jaso genuen. Dokumentuak LAB Sindikatuak urtarrilaren 10eko proposamenari egindako hainbat ekarpen jasotzen baditu ere, oraindik badira jaso ez direnak eta egindako beste batzuei zehaztasuna falta zaie. Berdez jarri ditugu orain arte LABek negoziazioan zehar egin dituen eta onartu dituzten ekarpenak.

Lehenengo zutabearen 2009ko Lan Hitzarmenean jasotzen direnak daude zehaztuta, gaur egun indarrean daudenak, alegia. Bigarren zutabearen Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmenaren azken zirriborroan jaso direnak.

Borroka da bidea. Mahaietan eta kalean egongo gara Hitzarmen on bat lortu arte.

### INDARREAN DAGOENA

#### 8. artikulua: Antolaketa (RATIOAK)

- Dekretuari egiten zaio erreferentzia  
297/2002 Dekretuko 4. artikuluan Hezitzaile bat gela bakoitzeko

### ZIRRIBORROAK JASOTZEN DUENA 2026ko abenduaren 31 arte iraungo du baina Indarrean jarraituko du hitzarmen berri bat indarrean jarri arte.

#### 8. artikulua: Antolaketa (RATIOAK)

- Dekretuari egiten zaio erreferentzia.
- Plantillak esleitzeko irizpideak adostu bitartean, gaur egun erabiltzen diren ratioak aplikatuko dira, beti ere, **Lan Hitzarmen honetan jasotzen den 6 orduko arreta zuzena kontutan hartuz.**

#### **Gela bakarreko zentroak:**

- Beti gutxienez 1,5 hezitzaile.
- Tartekatzean 1 urteko haurrak badaude:
- 7-8 hurrekin 1,5 hezitzaile.
  - 9 haurretik gora 2 hezitzaile.
- Taldekatzean 0 eta 1 urteko haurrak badaude:
- 6 hurrekin 1,5 hezitzaile.



- 7 haurretik gora 2 hezitzaile.

**Gela anitzeko zentroak:**

0 urteko gelan:

- 4 haurrekin hezitzaile 1
- 5-6 haurrekin 1,5 hezitzaile.
- 7 haurretik gora 2 hezitzaile.

1 urteko gelan:

- 6 haurrekin hezitzaile bat.
- 7-8-9 haurrekin 1,5 hezitzaile.
- 10etik aurrera 2 hezitzaile.

- Plantilak esleitzeko irizpideen (ratioak) negoziazioa 2024-2025 ikasturteko hirugarren hiruhilekoan hasiko da.

**13. artikulua: atxikipenak**

- Permutak (lanpostu trukatzek) EZ DIRA JASOTZEN.

**16. artikulua: pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak**

- Pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak legedian eta Haurreskolak Partzuergoaren estatutuetan ezarritako prozeduren arabera egingo dira.

**19. artikulua: urteko lanaldia**

- Kudeaketako langileak: 1592 urteko lanaldia
- Hezitzaileak: 1570 urteko lanaldia

**13. artikulua: atxikipenak**

- Langile finkoentzako **permutak edo lanpostu trukatzek** jasotzen dira.
- **Lekualdatze lehiaketak urtero** egingo dira

**16. artikulua: pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak**

- **Hiru urtean behin lan-eskaintza publikoa egingo da** behin-behinekotasun tasa gehinez ere %5 izan dadin.
- **Eskaintza publikoan betetzeko plaza hutsak eta LEP eredia alderdi sozialarekin** negoziatuko dira.

**20. artikulua: urteko lanaldia**

- **Kudeaketan:** 1592 eta 47 ordu norberaren eginkizunetarako.
- **Hezitzaileetan:** 1470 eta 6 egunetako baimena arautua eta egutegian kokatuta. Hezitzaileen egutegian jai egunen erdia Zuzendaritza batzordeak kokatua eta beste erdia Jarraipen batzordeak.

## 20. artikulua: Hezkuntza alorreko pertsonalaren eguneko lanaldia

- Eguneko lanaldia 7 ordukoa
- Arreta zuzena 6 ordu eta 15 minutu
- Prestakuntza 45 minutu
- 100 formazio ordu (50 kreditatu + 50 erregistro pertsonala).

### Koordinazio denbora

8 edo gehiago – Lanaldi osoa  
6 edo 7 - Lanaldi erdia  
4 o 5 – 90'  
2 o 3 – 60'  
1- 45'

- Lanaldi partzialeko kontratua duen hezkuntza alorreko pertsonalak kontratuaren araberako lanaldi proportzionala beteko du.

## 21. artikulua: Hezitzaileen egutegia

- 210 lan egun ezartzen dira, irailaren 1etik uztailaren 31rarte, biak barne. 210 egun hauetatik 206 umeei arreta zuzena emateko izango dira.
- Haurreskolak 212 egun irekita

- 80 formazio ordu (50 kreditatu)

## 21. artikulua: Hezkuntza alorreko pertsonalaren eguneko lanaldia

- **Eguneko lanaldia** 6 ordu eta 45 minutu
- **Arreta zuzena** 6 ordu
- **Prestakuntza 45 minutu**, astean zehar metatu daitekeena.
- **80 formazio ordu** (50 kreditatu (ziurtagiria lortzeko ) + 30 erregistro pertsonala).
- Formazio orduak **lan jardunarekin proportzionalak** izango dira bata zein bestea. **Osorik egin nahi izanez gero eskatu behar da.**

### Koordinazio denbora

8 edo gehiago - Lanaldi osoa  
6 edo 7 - Lanaldi erdia  
4 edo 5 – Lanaldi herena  
2 edo 3 - 90'  
1 – 60

- **Jardun murriztuan egon arren, koordinatzaile plusa osorik jasoko du baldin eta koordinazio ordu guztiak egiten baditu.**

## 22. artikulua: Hezitzaileen egutegia

- Hezitzaile bakoitzarentzat **200 lan egun ezartzen dira**, irailaren 1etik uztailaren 31rarte, biak barne. **200 egun hauetatik 196 umeei arreta zuzena** emateko izango dira



**36. artikulua.– Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatiko lizentzia.**

- Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. bi egun horietako bat errolda-ziurtagirian agertzen den etxebizitza aldatzearen data izango da nahitaez.

**41. artikulua.– Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.**

- 2.– lehen mailako senideei, senar-emazte edo adin txikiko seme alabekin mediku kontsultetara joateko baimena onartzen da. **Baimen honetan erabilitako denbora hezitzaileak hurrenagoko bi hilabetetan errekuperatu behar du.**

**EZ DA BAIMEN ORDAINDU HAU JASOTZEN**

**44. artikulua.– Norberaren eginkizunetarako baimena.**

- **Gutxienez zazpi egutegi egun** iraungo du baimenak, eta betiere egunak elkarren segidakoak izango dira. **Eskaera 15 egun** lehenago egin behar da, ezinbesteko egoerak salbu. **Salbuespeneko kasuetan (familia eta lana uztartzeko beharrak direla eta, edo lehen mailako odol senideen**

**40. artikulua.– Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatiko lizentzia.**

Erroldatze datatik 15 egun naturaleko epean baliatuko da lizentzia hau

**46. artikulua.– Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.**

- Ikasturtean 20 ordu ordaindu emango dira honetarako.

**47. artikulua. Odola edo odol-osagaiak emateko baimen ordaindua.**

**50. artikulua.– Norberaren eginkizunetarako baimena.**

- **7 edo 3 egunetako gutxienezkoa kentzen da, egun bakarra hartu ahalko da. 10 eguneko** aurreikuspenarekin eskatu beharko du langileak salbuespen kasuetan izan ezik.



gaixotasun larrien kasuetan) iraupena gutxienez hiru lanegunekoa (segidakoak) izan daiteke.

**APLIKATZEN ZEN BAINA EZ ZEGOEN HJASOTA**

**48. artikulua.– Genero indarkeriaren biktima den langilearen lanaldi murrizketa, jardunaldiaren egokitzapena eta lantokiaren aldaketa.**

**51. artikulua.– Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak.**

30.000

**Gaur egungo soldata taularen arabera**

**57,12 euro**

**56. artikulua.- Eszedentziak**

7) **Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia.**

**58. artikulua.– Indarkeri matxistagatiko lanaldi murrizketa, jardunaldiaren egokitzapena eta lantokiaren aldaketa**

**61. artikulua.– Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak.**

33.000 euro

**61. artikulua.- Erropa osagarria**

**120 euro**



**52. artikulua.– 60 urtetik gorakoei zuzeneko arretako denbora murriztea.**

60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. Denbora hori prestakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da.

**64. artikulua.– 60 urtetik gorako langileak.**

**Akordioan zehaztuta dagoenaz gain**

- **1.** 60 urtetik gorako langileei zuzeneko arretarako denbora murriztea. 60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. **Denbora hori, prestakuntzarako 45 minutuak gehituta, hereneko ordezkapenarekin beteko da.**

**Zirriborroan jasotzen diren beste berritasun batzuk:**

**29. artikulua.- Aurrerakinak**

Haurreskola Partzuergoko langileek, indarrean dauden aurrekontu-kontsignazioen barruan, beren hileko soldata garbiaren % 100erainoko aurrerakin arruntak interesik gabe jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta kontratuharremana hilaren amaiera baino lehen amaitzea aurreikusten ez bada..

**30. artikulua.- Nomina-aurrerapenak**

Haurreskola Partzuergoko langile finkoek, hitzarmena sinatzen denetik aurrera, nominaren aurrerapen bat jasotzeko eskubidea izango dute

**35.- artikulua.- Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme-alaba zaintzeko baimena**

Nahiz eta elkarrekin ez bizi, haren tutore legala bada

**36.- artikulua. – Norberaren gaixotasunagatik lanaldia murrizteko baimena.**



Norberaren gaixotasunagatik, lanaldi arrunta zortziren batean, bosten batean, heren batean edo erdian murrizteko baimena eskatu ahal izango du langileak.

**37.- artikulua. – Lehen mailako ahaideen gaixotasun oso larriagatiko lanaldia murrizteko baimena.**

Gaixotasun oso larria duen lehen mailako ahaide bat edo, elkarrekin bizi badira, maila urrunagoko ahaide bat zaintzeko, langileak lanaldiaren erdia edo herena murrizteko eskubidea izango du, ordainduta eta gehienez hilabeteko epean.

**45. artikulua.- EAeko Administrazio Orokorrean sartzeko probetara joateko lizentzia.**

**52. Atikulua.- Ikasketak eta/edo praktikak egiteko baimena**

**53. Artikulua.- Goi mailako kirolarientzako baimena**

**57. artikulua.- Eszedentzia berezia**

Bi urteko antzinasuna badute, borondatezko eszedentzia berezia hartzeko eskubidea izango dute, eta lanpostua gordeko zaie zerbitzuak ematen dituzten ikastetxe berean, gutxienez sei hilabetez eta gehienez urtebetez (hezitzaileen kasuan, azken kasu horretan, aldi hauetakoren batean egon beharko du: abuztua-urtarrila edo otsaila-uztaila).

**63. artikulua. Gizarte funtsa.**

20.000 euroko Gizarte Funtsa eratilp da Haurreskolak Partzuergoko langileentzat Hezitzaile zein kudeaketako langileentzako diru partida berezituko da. Funtsen deialdia 2024/2025 ikasturtean egingo asotzea eskatu dugu

**65. artikulua. Urte sabbatikoa.**

- Administrazioan araututa dagoen baldintza beretan aplikatuko da



### **67. artikulua. Segurtasuna eta lan osasuna.**

- Sei urtetik behin arrisku psikosozialen eta ergonomikoen azterketa egingo da Haurreskola Partzuergoak. Lehenengoa 2025/2026an ikasturtean egingo da

### **69. artikulua.– Formakuntza.**

- 4.500 euroko urteko funtsa ezartzen da. Hezitzaile zein kudeaketako langileentzako diru partida berezituko da. Deialdia mahai parekidean negoziatu eta adostuko da . Funtsen deialdia 2024/2025 ikasturtean egingo da.

### **70. artikulua.– Euskalduntzea.**

- Euskalduntzean hobetzeko beste erakunde batzuk eskainitako ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaini ahal izango zaie Haurreskolak Partzuergoko langileei. 25/26 ikasturtean parte hartu ahal izateko helburuz.

### **72. artikulua.- Sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa.**

Sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, indarkeria matxistaren agerpenak dira eta pertsonen arteko tratu berdintasunaren aurkakoak. Honen aurrean Hezkuntza komunitatearekin batera espazio berdinean dauden pertsona ezberdinen arteko botere harremanei aurre egiteko prebentzio neurriak jartzeaz gain, edozein erasoari erantzuna emateko protokolo bat adostu beharra dago, hezitzaile, kudeaketa alorreko langile, familiak eta haurrak kontuan izango dituenak.

Bestetik langileen artean ere erasoak eman daitezke eta hauei ere aurre egiteko protokoloa berritu behar da.

## **HAMAIKAGARREN TITULUA.- LGTBI PERTSONEN ESKUBIDEEN ALDEKO NEURRIAK.**

### **73. artikulua.- LGTBI pertsonen berdintasuna bermatzea.**

LGTBI pertsonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, Haurreskolak Partzuergoak sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko neurriak hartuko ditu. Hala, hizkuntza inklusiboa erabiliko du bere agiri eta izendapenetan. Sexu-joera, genero-identitate eta genero adierazpenaren araberrako bereizkeriarik gerta ez dadin, berariazko formakuntza eta prebentzio neurriak ezarriko ditu.





Batzorde bat eratuko du, 4/2023 Errege dekretuak aurreikusitako edukiak bilduko dituen LGTBI pertsonen eskubideen aldeko Plana zehazteko. Batzordea neurrien negoziaketaz, betetzeaz eta jarraipenak arduratuko da. Baita protokoloaren jarraipenaz eta ebaluazioaz.

#### **74. artikulua.- sexu-joera, genero-identitatea eta genero-adierazpenaren arabera jazarpenaren aurkako protokoloa.**

Protokoloak jazarpen egoera baten aurrean eman beharreko pausoen deskribapen zehatz eta argia azalduko du, eta LGTBI kolektiboarekiko jazarpen eta bortizkeria mota guztien prebentzio goiztiarra sustatu. Babes osoa eskainiko dio jazarri izan den pertsonari, neurri eraginkor eta azkarren bidez. Xede hau betetzeko, langile guztiek izango dute protokoloaren nondik norakoen berri.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa.-**Udal titulartasuna duten haur-eskolak Haurreskolak Partzuergoan integratzeko urratsak emango dira langileak subrogatuz eta hitzarmen honetara atxikituz

**Bigarrena.- Etorkizunerako aurreikuspen plana.-**Administrazioak eta sindikatuek Haurreskolak Partzuergoko 2024-2025 ikasturteko hirugarren hiru hilabete langileentzat etorkizunerako aurreikuspen plana ezartzeko aukera aztertu eta negoziatuko dute mahai parekidean.

**Hirugarrena.- Berme klausula.-** Hitzarmen honetan jasotzen diren aurrerakinei, nomina aurrerapenei, bizi-aseguruari, istripuari, erantzunkizun zibilari, joan etorrien balioei eta lizentzia eta baimenei buruzko klausulak hobetu egingo dira Hezkuntza Saileko lan legezpeko hezitzaileen lan hitzarmenean ezartzen diren baldintzen arabera.

Kudeaketa alorreko langileen kasuan gainera, administrazio orokorreko lanaldiaren, ordutegiaren,..., inguruko akordioak aplikatuko dira. Egokitzapen hori berehalakoa izango da eta aipatutako erabakietan dituen ondorio berberak izango ditu. Aurrekoetan barneratzen ez diren lan baldintzei dagokionez, hauek mahai parekidean negoziatu eta adostuko dira.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenengoa.-** Hezitzaileen ordezkapenentzako aplikazioa 2025-2026 ikasturtean jarriko da martxan.



**Bigarrena.**- II ·eranskinean jasotako araudi hau hezitzaileen ordezkapenatarako aplikatiboa martxan jartzen denean sartuko da indarrean. Momentu horretan indargabetuko da Indargabetu egiten da I eranskina 2019ko uztailearen 8ko 03/07-2019 Erabakia, LAB sindikatuak sinatutakoa, haur hezitzaileen ordezkapenak egiteko eta plaza hutsak betetzeko aurreko araudia jasotzen duena.

**Hirugarrena.**- Araudi hau 2024ko baremazio/birmaremazioaren ondoriozko haur hezitzaile lanpostuentzako ordezkogaien zerrendei aplikatuko zaie, hezitzaileen ordezkapenatarako aplikatiboa martxan jartzen denean Zuzendaritza Batzordearen 2021eko abenduaren 22ko 03/12-2021 erabakia, Haurreskolak Partzuergo Publikoan hautagaien zerrenden behin-behineko irekiera eta hezitzaileen merituen baremazio-birmaremaziorako irizpideak finkatzen duena onarri hartuta.

**Positiboki baloratzen dugu orain arte eman diren urratsak eta bihar, besteak beste ekarpen hauek egingo ditugu:**

**Ordezkoen araudiari dagoekionez, hainbat ekarpen falta dira jasotzeko,** besteak beste ordezkagunea indarrean sartzeko dataren konkretioa. Kudeaketa alorrari dagokionez, batetik, kudeaketa alorreko langileen barne sustapenen eta ordezkoen araudiak zein ordezkapenak egiteko kasuistikkak negoziatzeko egutegia zehaztea. Bestetik, kudeaketa alorreko **langileei eragiten dieten hainbat osagarri aztertzen ari gara.**

,

**Gogoratu hurrengo astean greba egunak ditugula, urtarrilak 28 eta 29an! Eta otsailak 12 eta 13an!  
Batu borrokara!  
Batu grebara!**